

BALIO PROPOSAMENA

Gure produktua jadanik existitzen den arren, eskainiko dugun zerbitzuak funtzio berri bat ipiniko du eskuragarri. Izan ere, errealitate birtualeko betaurrekoak, duela urte batzuk asmatu ziren, eta arrakasta handia izan dute, batez ere bideojokoen eremuan; 2010etik aurrera munduko bideo joko zaleak betaurreko hauek probatzen hasi ziren hainbat jokotan eta, eduki zuten arrakasta ikusita, betaurrekoen bertsio gero eta aurreratuagoak ateratzen joan dira gaur arte. Hala ere, ez zaie inoiz guk emango diegun zerbitzua egokitu: gure enpresak, errealitate birtualeko betaurreko hauen bidez, kontzertuak zuzenean ikusteko aukera emango du, orain arte inoiz egin ez dena.

Zerbitzu honek beharrik asetzen ez duen arren, arazo bat konpontzen du, izan ere, sarrerak agortzen direnean kontzertura joateko aukera ematen du. Sarrerak agortzean soilik dago eskuragarri zerbitzu hau, kontzertuetako edukieraren jarraipena bermatzeko, eta era honetan esperientzia errealagoa izateko. Hau da, esperientzia hau bizitzen ari zaren bitartean, zure inguruan momentuan bertan dagoen jendea ikusi ahal izango duzu. Gainera, horrela abeslariak kontzertu hutsak ez lituzke emango eta ohitura musikalaren biziraupena luzatuko litzateke. Honekin esan nahi duguna da agian jendeak alferkeriagatik nahiagoko lukeela etxean geratu esperientzia bizitzen, eta hau denek egingo balute, lekua hutsik egongo litzateke. Beraz, kontzertuetara joateko ohitura galdu egingo litzateke, eta guk hori saihestu nahi dugu.

